



*Un chien andalou*  
**80 urteren buruan**

## **Erakusketa:**

# *Un chien andalou. 80 urteren buruan*

2009ko irailaren 17tik azaroaren 8ra

Orduetgia: asteartetik igandera. 11:00-14:00 / 17:00-20:00

Irekiera-ekitaldia: irailaren 17an, 20:00etan

Tabakalera (Mandasko dukea, 52. Donostia)

Sarrera dohainik

### **Antolatzailea:**

Espainiako Kultur Ospakizunetarako Sozietatea (SECC)

### **Laguntzaileak:**

Espainiako Zinema Akademia

Calandako Buñuel Zentroa

Donostiako Zinemaldia

Tabakalera

### **Proiektua**

La Fábrica

### **Ekoizpen exekutiboa:**

SECC/La Fábrica

### **Komisarioa:**

Amparo Martínez Herranz

### **Koordinazioa:**

Yolanda Hernández Pin (SECC)

Victoria del Val (La Fábrica)

### **Erakusketaren diseinua:**

Leona S L

### **Beste egoitza eta data batzuk:**

MEIAC (Badajoz)

Azaroaren 20tik 2010eko urtarrilaren 17ra

Laguntzailea: Extremadurako eta Iberoamerikako Arte Garaikideko Museoa (MEIAC)

La Lonja (Zaragoza)

2010eko otsailaren 27tik apirilaren 11ra

Laguntzailea: Zaragozako Udala

“Ametsak maite ditut, nahiz eta nire ametsak amesgaiztoak izan, eta horixe dira gehienetan ere. Ezagutzen eta antzematen ditudan oztopoez gainezka agertzen zaizkit ametsak. Ametsekiko eromen hau azaltzen ez naiz inoiz saiatu, baina surrealismorantz eraman nauten grina bizietako bat izan da. Un chien andalou nire ametsetako batek eta Dalíren amets batek bat egitean sortu zen”.

Luis Buñuel

Parisko Studio des Ursulines-en estreinatu eta laurogei urte geroago, **Espainiako Kultur Ospakizunetarako Sozietateak (SECC) *Un chien andalou*. 80 urteren buruan** erakusketa antolatu du Luis Buñuelen eta Salvador Dalíren maisulanaren omenez, Espainiako Kultura Ministerioak koordinatuta. Erakusketan **ehundik gora lan** bildu dira, liburuak, aldizkariak, gutunak, kartelak, prentsa-ebakinak, argazkiak, gidoiak, marrazkiak, proiektzioak, soinudokumentuak, margoak... batuta. Guztiek ere filma nola pentsatu eta egin zen erakusten digute, zinemaren historia unibertsalean eta Europako abangoardietan inflexio-puntua markatu zuen film labor haren alderdi berriak argitu eta jorratzearekin batera.

**Amparo Martínez Herranz** Zaragozako Zinemaren Historiako irakasle titularra da XX. mendeko ikusizko-artearen lorpenik handienetako baten berezitasuna eta berebiziko garrantzia agerian uzten dituen erakusketa honen komisarioa. Gure garaiko ikusizko-kulturan izugarritzko eragina izan duen lan baten gaurkotasuna nabarmentzen da erakusketan, surrealismoarekin dituen loturak gorabehera, gaur-gaurko ikuspegi batetik aztertzeoak diren alderdi ugari biltzen baititu filmak: jorratzen dituen gaiak, bere garaiairekiko lotura eta gerora izandako eragina.

Erakusketa hiru ataletan antolatuta dago:

**1. *Un chien andalou* eta bere garaia.** Erakusketaren lehen atalean garaiko giroa eta filmaren sorkuntzan eragina izan zuten baldintza kulturalak aurkezten dira. Garai hartako giroan eragin handia izan zuten Madrilgo Residencia de Estudiantes egoitzan partekatutako ikaskuntzek eta konplizitateek. Emilio Prados, Federico García Lorca, Luis Buñuel, Salvador Dalí, Pepín Bello... batera ibili ziren han, eta Rafael Alberti ere maiz joaten zitzairen bisitan. Esparru honetan, Luis Buñuelen, Federico García Lorcaren eta Salvador Dalíren arteko harreman gurutzatuaren baitako adiskidetasuna eta enigma ulertzea funtsezkoa zaigu, hori gabe nekez ulertuko baitugu *Un chien andalou* filma. Kanpotik zetozen eragin eta korronteak ere oso garrantzitsuak izan ziren, bai eta garaiko hainbat pertsona ospetsurekiko harremanak ere. Ramón Gómez de la Serna zen pertsona ospetsu horietako bat, surrealismoak Espainian izaera bitxia eta berezkotasun bizi-bizia izaten lagundu zuena. Eragin horiek oso nabarmenak dira *Un chien andalou*-ko irudi askoren sorkuntzan, orduan loratzen ari zen espainiar abangoardiaren berezitasunen eraginez. Berezitasun horrek artearen alor guztietan izan zuen eragina.

Atal honen barruan, Espainiako zine-klubaren inguruan antolatutako zinema-jarduerak eta Buñuelek zinemarako egindako lehen lanak aurkeztuko dira, halaber.

**2. *Un chien andalou*-ren prestaketa eta filmaketa.** *Un chien andalou*-ren filmaketaren, estreinaldiaren eta ondorioen inguruko gorabeherak aztertzen dira atal honetan, ahal den neurrian. Filma estreinatu —1929ko ekainaren 6an, Parisko Studio des Ursulines-en, Man Ray-ren *Les mystères du château du Dé* eman eta gero— eta berehala erreferentziazko lana bihurtu zen talde surrealistentzat eta mugimendu horren ikus-entzunezko manifestua izango zen, nolabait.

*Un chien andalou*-ren argumentua bi ametsetatik sortu zen: Buñuelek ilargiaren eszena eta emakumearen begia ebakitzen duen aiztoarena amestu zituen eta Salvador Dalík, berriz, inurriak ateratzen zaizkion eskuarena. Bi jeinu hauek gutxienez astebete egon ziren elkarrekin Figueres-en, eta orduantxe prestatu zuten filmerako gidoia, azalpen arrazional, psikologiko nahiz kulturala izan zezakeen ideia eta irudi oro baztertzeko eta irrazionala zen guztiari ateak zabaltzeko arauari jarraiki.

*Un chien andalou* bere egileen sormenaren fruitua izan zen, bai, baina baita haien ezagueren, eraginen eta oinordetza artistiko eta kulturalen emaitza ere. Horiek guztiak erakusketan jasota daude. Filmak arrakasta handia izan zuen, eta surrealistek poz handiz hartu zuten, beren ideiak laburbiltzen zituelako. Filmak gure garaiko ikusizko-historian izandako eragina eta filmari egindako erreferentziak ugaritzea ekarri zuen arrakasta hark. Bai Buñuelen filmografian bertan, bai geroago, Alfred Hitchcock-en, David Lynch-en edota Jonathan Demme-ren filmetan ere, *Un chien andalou*-ren arrastoa antzematen da. Film hartako irudien indarra bere garaiko mugarrria izan zela, eta gaur egun ere oraindik badela frogatzen du horrek. Hori dela eta, lotura hori erakusten duten filmen eta zuzendarien filmografia eta ikus-entzunezko materialak aukeratu ditugu atal hau osatzeko.

**3. Gaiak: arriskutsua da barrura begira jartzea.** Atal honetan, hizpide dugun filmean jorratzen hasitako irudi eta gaien ibilbide batzuk ezagutuko dituzte bisitariak. Dalíren eta Buñuelen beraien eta *Un chien andalou*-ren eragina izan zuten beste sortzaile askoren lanetan hedatu eta garatuko ziren irudiak eta gaiak dira horiek: kanpo-begirada “itsutzea” barrurantz sartzeko; txirrindularia eta sexu-jolasean jarduteko makina zitalen tankerako bizikletak; egon gabe bertan den gorputza; kutxen joko eta barruan dutena ez jakiteak sortzen duen gozamina; gorputz-atal moztua galeraren ikur gisa, galdutakoa esku bat nahiz askatasuna bera izanda ere; gizartearen ustelkeria irudikatzen duten asto usteltzen hasiak, pianoak berezkotasunaren heriotzaren adierazgarri diren gizarte batean; birjina amatiarrak ziren farfailgile eta jostunak nahastari gaizto bihurtuak; intsektuen protagonismoa, azkenerako soka eta lokarriekin atzemanda eta harrapatuta gelditzen den senaren araztasunaren adierazle; eta, azkenik, erotismoaren eta heriotzaren arteko bikotea, filmeko lehen iruditik azken-azkeneraino.

Luis Buñuelen eta Salvador Dalíren garaiko egileek filma estreinatu zenean egindako pintura, eskultura, objektu eta marrazki askotan *Un chien andalou*-ren eta orduko arte-korronteen arteko lotura estua ikusten da. Man Ray, Max Ernst, Federico García Lorca, Rafael Alberti, José Caballero eta Remedios Varo dira egile horiek, besteak beste. Horrekin batera, Luis Buñuelen eta beste zinema-zuzendari batzuen geroagoko filmetako materialak ere jaso ditugu, bertan ere gai berberak jorratzen eta islatzen direlako.

Erakusketa osatzeko, honako hauek ikusteko aukera izango dugu: *Un chien andalou*, Espainiako Filmotekak zaharberitutako 1959-60ko soinudun bertsioan; Man Ray-ren *Les mystères du château du Dé*, *Un chien andalou*-ren Parisko estreinaldian ikusi zen filma; Buñuelen eta lehenagoko nahiz geroagoko beste egile batzuen filmetako zatiak eta garaiko soinu-dokumentuak (Max Aubek Albertiri, Francisco García Lorcarri, Buñueli eta Dalíri egindako elkarrizketak); eta Buñuelek sustatutako Espainiako zine-klubean ikusitako zenbait film: René Clair-en *Entr'acte* (1924), Jean Renoir-en *La fille de l'eau* (1924) Fernand Léger eta Dudley Murphy-ren *Le Ballet mécanique* (1924), Alberto Cavalcanti-ren *Rien que les heures* (1926) eta Ernesto Jiménez Caballero-ren *Esencia de verbena* (1930). Berriki egindako bi dokumental ikusteko aukera izango dugu halaber: José Luis López Linares eta Javier Rioyo-ren *A propósito de Buñuel* (2000) eta Tito Álvarez de Eulateren *Dalimatógrafo* (2004). Azken hori Espainiako Kultur Ospakizunetarako Sozietateak, Gala-Salvador Dalí Fundazioak eta Talent Television-ek ekoitzi zuten, Dalíren jaiotzaren urteurrena zela eta.

## **Katalogoa**

Espainiako Kultur Ospakizunetarako Sozietateak erakusketa honetarako prestatutako katalogoan *Un chien andalou* filmari buruzko azterketa zorrotza eta behin betikoa aurkezten zaigu, hiru liburukitan banatuta. Lehen liburukian hainbat egileren saiakerak jaso dira: Agustín Sánchez Vidal-en *Transferencias*, Brian Morris-en *Érase una vez Un perro andaluz*, Amparo Martínez Herranz-en *Del Découpage a la mariposa. Construyendo métodos y temas*, Manuel Gutiérrez Aragón-en *¡Feliz cumpleaños, Chien andalou!* eta Ferrán Alberich-en *La materia de los sueños*. Horrekin batera, *Un chien andalou*-ko gaiak (Kanpo-begirada itsutuz; Txirrindularia eta makina ezkongeak; Gorputza: bertan egonez eta egon gabe; Kutxak eta misterioaren gozamina; Eskua, anputazioa eta galera; Asto usteldua; Pianoa, hilkutxa; Farfailgileak eta jostunak. Birjina nahastariak; Intsektuak eta grinekin berriz ere bat egitea; Sokak eta loturak; Angelusa: erotismoa eta heriotza) aztertzen dira irudien bidez, eta gai bakoitzaren aurretik komisarioak idatzitako testutxo bat agertzen da, gaiok azaltzen. Lehen liburukia osatzeko, bibliografia eta erakutsitako lanen zerrenda agertzen zaizkigu.

Bigarren liburukiak atal hauek dauzka: kronologia bat; Francisco García Lorca, Luis Buñuelek eta Salvador Dalí filmeko gai eta irudiei buruz idatzitako literatur testuak; sorkuntza-prozesuaren azterketa bat, Buñuelen eta Dalíren testuak oinarritzat hartuta eta biek Pepín Belleri idatzitako gutun batez lagunduta; gidoiaren hiru bertsioen faksimile bertsioa (bertsio horiek faksimile moduan argitaratzen diren lehenbiziko aldia da eta filmaren benetako balioa eta filma egiteko prozesu korapilatsua ulertzen laguntzen digute) eta filmarekin zerikusia duten idatziak (Buñuelen eta Dalíren gidoiaren prestaketa eta gauzapeinari buruzko gutunak eta testuak).

Hirugarren liburukian DVD bat agertzen zaigu, Espainiako Filmotekak zaharberritutako bertsio batekin.

Gidoiaren hiru bertsioen euskarazko itzulpena ere jasotzen da hirugarren liburukian.

### **“Denbora-ildoak”:**

Bestalde, erakusketa dela eta, Parisko Pompidou Zentroko IRIK (Institut de Recherche et d’Innovation) prestatutako *Denbora-ildoak* ikerketa-analisirako software-a aurkezten digu Tabakalerak. Programa hori *Un chien andalou* filmari aplikatuta – Espainiako Filmategiak zaharberritutako bertsioari – filma grafikoki irudikatu eta zatikatu dezakegu. Filmaren bestelako ikuspegi bat eskainiko digu horrek. Gainera, *Denbora-ildoak*-eko segmentu bat aukeratuta, filmeko plano edo sekuentzia bat hartu ahal izango dute erabiltzaileek, eta testu-iruzkinen, audioaren, bideoaren, irudien eta Interneteko guneen bidez deskribatu eta aztertu.

Irailaren 23an, Vincent Puig IRIko zuzendariordeak eta Jenaro Talens idazle, film-aztertzaile eta *Un chien andalou*-ren adituak software horren erabilpena azalduko digute. Filmen inguruan gogoeta egiteko nola erabiltzen den erakutsiko digute, Buñuelen filmean aplikatuz. Hau guztia, Tabakalerak eta Donostiako Zinemaldiak antolatutako Zinema Eskolen Nazioarteko Topaketaren barruan izango da.

### **Amparo Martínez Herranzen biografia**

Zaragozan jaio zen (1966), eta Filosofia eta Letrak ikasi zituen bertan, Artearen Historiako espezializazioan. Zinemaren Historiako irakasle titular jardun zuen Zaragozako Unibertsitatean.

1999an Artearen Historiako doktoregoa lortu zuen, *Zaragozako antzerki-arkitektura*-ri buruzko lan batekin. Handik urte batzuetara bi liburukitan argitaratu zuen lan hura. Ikuskizunetarako arkitekturari buruz egin dituen ikerketak hiru liburutan jaso ditu. Horietako batean Zaragozako *Teatro principal* antzokia hartu zuen aztergai: 1799an atea zabalduz

geroztik, Espainian jardunean jarraitzen duen antzokirik zaharrenetakoa da. Beste bi liburuetan Zaragozako zinema-aretoetarako arkitektura aurkezten digu, festetako barraketan egiten ziren lehenbiziko emanaldiekin hasi eta XX. mende amaierako areto askotako guneetara iritsi arte. Hauek dira bi liburu horien izenburuak: *Los cines de Zaragoza. 1896-1936* (1997) eta *Los cines de Zaragoza. 1939 -1975* (2005).

Azken bi ikerketa horiez geroztik, zineman oinarritutako ikerketa-ildo bati ekin dio, zinemaren jakintza-alorrarekin zerikusia duten hainbat esparru aztertu eta ikertuz. Aragoiko zinemaren historia aztertu du *Cine español. Una historia por autonomías* (1996) liburuko “Historia del cine de Aragón” atalean eta *La llegada del cinematógrafo a España* liburuko (JR Saíz Viaderok koordinatu eta argitaratua, 1998) “La llegada del cinematógrafo a Aragón” kapituluan, eta Agustín Sánchez Vidalekin batera idatzitako “Cartelera cinematográfica zaragozana” (1995) artikuluan, besteak beste. Zinemaren eta literaturaren arteko loturari eta zinemaren aurretiko ikuskizun eta denbora-pasei buruz ere idatzi du, taldean idatzitako *La educación de la mirada. Zaragoza y la evolución de los espectáculos ópticos* liburuan (2007) esate baterako. Dena den, Espainian zinemaren jatorriarekin zerikusia duten alderdiak ikertu ditu gehienbat.

Gai horri buruzko hainbat artikulua idatzi ditu eta gaiari buruzko informazioa eguneratzen zuen *Artigrama* (2001) aldizkariko ale monografikoa koordinatu zuen. Zenbaki horretan editore jardun zuen, zinemako enpresaburuek eta ferietan ibiltzen direnek gaiari buruz emandako azalpenak sistematizatuz.

Hainbat erakusketatako laguntzaile eta komisarioa izan da, eta, horrez gain, ikastaroak eta mintegiak antolatu ditu zine dokumentalari, zinema eta literaturari, eta zinema eta historiari buruz. 2004az geroztik Zaragozako Unibertsitateko Artearen Historiako Departamentuaren eta Kultur eta Gizarte Hedapenerako Errektoreordetzaren artean antolatutako *En torno al guión* izeneko jardunaldien koordinatzailea da. Jardunaldiotan hitzaldi batzuk, gidoiak idazten hasteko eta aztertzeko ikastaro bat eta hainbat film-emanaldi egiten dira. Zaragozako Unibertsitateko Artearen Historia Departamentuko zuzendariorde izendatu zuten 2005ean.

2001ean I+G-ko bi proiektutako ikerketa-talde baten koordinatzaile arduradun izendatu zuten. Luis Buñueli buruz Espainian dauden dokumentuak ditu aztergai ikerketa-talde horrek eta Espainiako Zientzia eta Teknologia Ministerioaren finantzazioa izan zuen 2001-2003 bitartean, eta Hezkuntza eta Zientzia Ministerioarena 2004-2007 bitartean. Ikerketa horiei jarraiki, nabarmendu beharreko hainbat artikulua idatzi ditu Martínez Herranzek: *Gran Casino de Luis Buñuel* (2002); *El Gran calavera y la integración de Luis Buñuel en la industria del cine mexicano* (2003); *Susana de Luis Buñuel. Subversión y renovación del melodrama* (2007); *Susana. Demonio y Carne. De la Edad del oro al universo ranchero* (2008); *El método de trabajo de Luis Buñuel: en torno al guión técnico de Él* (2007); *Disciplina y libertad: el proceso creativo de Luis Buñuel* (2008) eta *Nazarín: guiones y genealogías* (2008).

**Argibide gehiago:**

**Espainiako Kultur Osparkizunetarako Sozietatea (SECC)**

Rosa Valdelomar (prentsa-arduraduna) (616 42 26 36), Mónica Hernández (636 47 82 44) eta Pablo Garrigues  
Tlf.: 91 310 00 21 [prensa@secc.es](mailto:prensa@secc.es) / [www.secc.es](http://www.secc.es)

**Tabakalera**

Rosa Zufía (komunikazio-arduraduna) / Nere Lujanbio  
Tlf: 943 011311 / [komunikazioa@tabakalera.eu](mailto:komunikazioa@tabakalera.eu) / [www.tabakalera.eu](http://www.tabakalera.eu)

**Bisita gidatuak eskatzeko:**

Tlf: 620676095

## Antolatzailea:



## Laguntzaileak:

